

«Publikoak ondo pasatzea da gure helburua»

Onintza Odriozola ▶ Sei lagunek osatu zuten Losdelgas taldea duela 2 urte. Hasieran bertsioak jotzen zituzten, baina denborarekin maketa grabatu zuten beraien abestiekin. Orain diskoa prestatzen ari dira lokailean. Gaur kontzertua eskainiko dute Kandela aretoan. IRUTXULOKO HITZAK Sergio Callejo taldeko gitarra jotzaile anti-guatarrarekin hitz egin du.

Disko berriaren aurkezpena

izango da gaurko kontzertua?

Berez, taldearen aurkezpena izango da. Diskoa bukatu gabe dago oraindik, irailerako ateratzea espero dugu.

Kontzertuetan musika eta antzerkia nahasten omen dituzue.

Bai. Kontzertua baino gehiago showa da. Guk musika egiten dugu, baina bi abeslariak antzezleak ere badira. Kantuak

aurkezten dituzte, mozorrotu egiten dira...

Zuek ere butano saltzailez mozorrotzen zarete, ezta?

Butano saltzaileen gremioaren omenez da.

Zer eskainiko duzue gaur gauean?

Maketan hamabost abesti grabatu genituen. Horietako batzuk eta diskorako prestatzen ari garen beste batzuk joko ditugu.



IRUTXULOKO HITZA

Zein musika mota egiten duzue?

Era guztietako musika jotzen dugu. Swing estiloko abesti baten ondoren rock estilora pasatu gaiteske. Funkya, blue-sa... Hala ere, gehienbat rocka lantzen dugu.

Zer moduz orain arteko kontzertuetan?

Hasieran jendeak harriturik begiratzen gaitu, sei butano saltzaile taula gainean ikusita. Baina gero lortzen dugu abesten eta dantzan jartzea. Publikoak ondo pasatzea da gure helburua.

▶ **Non.** Antiguako Kandela aretoan. ▶ **Ordua.** 22:00.